

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko apirilaren 6a • 198. zka.

Etxebizitza

hau burukomina!

Iturririk iturri: Koldo Zuazo • Iritzia: Xabier Sarasua • Kirolak: Aitor Etxenausia



*Aldakorretan
aldakorrena*

OPEL



Garaje Talleres Norte, s.l. Zerbitzu ofiziala

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 62 65/Fax: 943 77 16 20



Neurrira egindako estoreak, kortinak, bandoak, edredoiak, eta neurrira moztutako oihalak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

Zergatik uste duzu daudela etxebizitzak hain garesti? Zein izan daiteke konponbidea?



Enkarna Mendez

Lurren jabeek oso prezio altuak jartzen dituzte eta baita eraikuntza enpresek ere. Gobernuak eskua sartu beharko luke, berak baitauka boterea.



Clema Sillero

Eskaria eskaintza baino haundiagoa delako. Irtenbidea zaila da, lehenik eta behin prezioak jaitsi beharko lituzkete.



Xabier Uralde

Lan mundua ondo egoteak dirua dakar eta horrek eragina du prezioak igotze horretan. Irtenbidea eraikuntza enpresei galdetu behar zaie.



Mikel Parra

Egoera ekonomiko ona izateaz gain, eskaera haundia dago. Udalak eta administrazioak dirulaguntzak eman beharko lituzkete.

ESKUTITZA



KEPA URRA GOSE GREBAN

Jadanik denok dakizuen bezala, Euskal Preso Politikoak gose greba luze bat burutzen ari dira, txandaka, azken hilabete luze hauetan. 20 preso dira uneoro gose greban daudena eta batek utzi ahala beste batek hartzen du haren lekukoa, horrela beraien zuzenbidez kanpoko egoeraren salaketa denboran luzatzeko.

Laster batean, Kepa Urrea preso atxabaltarra izango da gose grebaren lekukoa hartuko duena, zehazki noiz izango den oraindik ez dakigu ere. Hau dela eta, atxabaltar guztiei dei egiten diegu presoak burutzen ari diren gose greba honekin bat egin eta beraien egoera salatzen lagundu asmoz herrian antolatuko den gose greba ekintzan parte hartzera.

Gure asmoa, Kepa gose greban egongo den denboran zehar, ostiral arratsaldetan hasi eta igande arratsaldetara gose greba eginaz herriko udaletxean elkartu eta egunez salaketa ekintza desberdinak burutzea litzaiteke. Horretarako ahalik eta pertsona kopuru handiena elkartzea da helburua, ekintzari dagokion garrantzia eman alde. Parte hartzeko guztiak lau taldetan banatuko ginateke, talde bakoitzak asteburu batetako ekintzan parte hartuko lukeelarik eta lau taldeon artean lau astebukaera beteko genituzkeelarik. Horretarako izena emateko zerrendak jarriko ditugu Urbaltz, Arlutz eta Zaraia tabernetan.

Badakigu data zehatzik jakin gabe izena eman beharrik zalantzak sor ditzakeela, baina eman izena lasai

asteburu batean parte hartzea ezinezkoa izanez gero beste asteburu batetara pasatu baitaiteke partehartzea. Lehenengo asteburua ez bada, bigarren, hirugarren eta laugarren bat izango da.

Besterik gabe, gai honen garrantzia ikusten jakingo duzelakoan, gure lan eta ardura ere baita presoen egoerari irtenbide bat bilatzea, zuen parte hartzearen zain gelditzen gara.

Eman izena eta parte hartu beldur barik.

Euskal presoak Euskal Herrira Atxabaltako plataforma

Aretxagazeta

188. zenbakia
2000ko apirilaren 6a.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaletako

Tfnoa: 943 79 86 21

Faxa: 943 77 18 54

e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Erredakzio-kontseilua:

Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak:

Mikel Arroja, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzailea:

Aitor Urrutia.

Inprimategia:

Eguzkigraf, Koop. Elk.



Tirada: 2.500 ale.

Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.

Lege gordailua: SS378 / 94.

ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Banketxeko behin-behineko bulegoa Durana kalean bertan dago

BBVA banketxea erre zuten ezezagun batzuek

Durana kalean dagoen BBVA banketxea erre zuten martxoaren 24tik 25era bitarteko gauean. Zortzi-hamarreko talde batek, goizeko ordu bi eta erdiak inguruan, koktelak banketxe barrura bota eta su eman zioten. Batzoki aurrera ematen duen banketxeko alderdiak izan bazituen ere kalterik haundienak, kearen ondorioz, guztia geratu zen beltzitura. Banketxe gaineko bigarren solairuan pertsona bakarra bizi da, Pili Altube, eta sortu zen kea ikusita, badaezpada ere

kalera atera zuen bere lobak.

Espainiako hainbat telebista erakarri zituen erre-keta honek eta zapatuan kate guztietan ikusi genituen Aretxabaletako irudiak. Dena dela, aste bukaera horretan antzeko beste ekintza batzuk ere izan ziren Euskal Herriko hainbat herritan, Gasteizen esaterako.

Erretako bulegoa garbitu eta berrituz bitartean, BBVAko bezeroentzako bulego probisional jarri da Durana kaleko 22. zenbakian.

Udalak bere elkartasuna adierazi zuen

Martxoaren 27an egin zen osoko bilkuran, Udalak, bere elkartasuna adierazi nahi izan zien erreketaren ondorioz kaltetuak gertatu zirenei. Alkateak irakurritako mozioan elkarriketa eta bake bideak jorratu behar direla ere esan zuen. EH, EAJ eta EAK baiezkoa eman zioten mozio horri. PPko zinegotziak, M^a Rosario Arruek, erabateko gaitzespena proposatu bazuen ere ez zuen beste inoren babesik jaso.

■ EKAINEN HASI NAHI DIRA LORAMENDITIK BAINETXERA JOANGO DEN BIDEAREN OBRAK

Loramendi kaletik Baintxeraino egin nahi den bidearen obrak ekainean hasi nahi dira, udako egunak aprobetxatu ahal izateko. Bi atal izango ditu bide honek. Loramenditik trenbiderainoko atalaz, Amarel enpresa eraikitzaile arduratuko da. Trenbideetik Baintxeraino doan zatiaz, berriz, udala egingo da kargu. 100 milioiko gastua izango du obra horrek, aurrekontuetan onartu bezala, eta 6 hilabeteko epean bukatu beharko dira lanak. Konkurtso bidez aukeratuko da obra bideratuko duen enpresa.

■ ARETXABALETAKO PLAN ESTRATEGIKO EGITEKO KONTSULTORIA BAT HARTUKO DA

Aretxabaletak zer behar dituen, zer falta den, zer egin daitekeen... jakiteko hau da, Aretxabaletako plan estrategikoa egiteko, udalak kontsultoria bat kontratatuko du. Helburua, herritarren iritzia jaso eta lau urte hauetan Aretxabaletarentzat ahal den gestio-rik onena egitea da. 8 milioi erabiliko dira horretarako eta 6 hilabeteko epea izango du kontsultoria plan estrategikoa egiteko.

©kindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako ofina

**Mobiliario
ARENAZA**

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz


Harakina

Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



HERRIKO PLAZAKO ERAIKUNTZA BOTA ETA ITXURA BEREKO BERRIA EGINGO DA

1998an, udalak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari herriko plazako eraikuntza lagapenean eman zion. Udaletxe izandako etxe hau, Kurtzebarri eskolako DBHko klaseak emateko birmoldatu gura da. Eraikuntza aztertu ostean, konponbiderik onena, osorik bota eta berria egitea izango dela uste da. Eraikuntza, ordea, herriko erdigune historikoan kokatuta dagoenez, ezin da bota. Osorik bota ahal izateko, erdigune historikoaren birgauzatzeko plan berezia aldatu beharra dago, eta horixe onartu zen martxoaren 27an egindako osoko bilkuran. 2002 kurtsorako egingo den eskolak, kanpotik oraingoaren itxura bera izango du, arauak eskatu bezala, baina barrutik ikasgelaz beteta egongo da.



Proiektu originalena saria jaso zuen Azkeko giltza elektronikoa

Azbek egindako giltza elektronikoa saritu dute

Seguritateko giltza elektronikoa asmatu eta merkaturuan jartzeagatik eman zioten saria pasa den martxoaren 23an, Bartzelonan, Azbe Assa Abloy enpresari. Giltza horren proiektua Arrasateko Ikerlanekin batera eraman zuten aurrera, zirkuitu elektronikoa egiteaz eurak arduratu dira eta.

Kopiarik ezin egin dakioken giltza

Saritutako giltza hau, txipa duen ohiko seguritateko giltza bat da. Sarraillako zilindroak zirkuitu elektronikoko baten bitartez txipa ezagutu eta zabaltzeko agindua ematen dio. Programaketa giltzaren bitar-

tez norberak nahi dituen giltza guztiak programa ditzake eta horiekin bakarrik zabalduko da sarrailla. Ikerlanek egindako sarraillako zirkuitu elektronikoa honi esker, ezin daiteke giltza honen kopiarik egin.

Bi urte merkatuan

2000ko Telekomunikazio ferrian proiektu originalenari saria orain eman badiote ere, giltzak, jadanik, bi urte daramatza merkatuan. Iñaki Arana operazio buruaren esanetan, hemengo jendea-ri garestitxoa iruditu arren, 18.000 pezeta inguru balio baitu, atzerrian oso ondo saltzen da. Giltza honek erakarri zuen Assa Abloy enpresa ere Azbera.

ETA ZU EZ AL ZARA ATZEGIZALEA?

Atzegik, Gipuzkoako atzeratu psikikoen aldeko elkarteak "eta zu ez al zara atzegizalea?" lemarekin hasiera eman dio aurten-go kanpainari. Apirilaren 14 arte iraungo duen sensibiltzazio kanpaina honetan zer den atzegizalea azaltzen saiatuko dira. Adimen urritasuna dela eta bizitzan zailtasunak dituzten pertsonen laguntza eta babesa eskeintzeko prest egotea da atzegizalea izatea, euren gaitasun eta baloreak bultzatzea, hau da, gizartearen parte hartzeko aukera ematea. Guzti horren berri emateko Aretxabaletako Aratz taldeak, domeka honetan, hilak 9, kale ateraldia egingo du. Durana kalean eguerdi inguruan egongo dira interesatu guztiak.



San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

Martín

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44



HAIZE ZAKARRAK FAROLA BAT BOTA ZUEN SANTA KURTZ KALEAN

Denetik ikusi genuen pasaden astean; elurra Kurtzebarrin beheraino, euria, eguzkia eta haize zakarra ere bai. Domekan egin zigun bisita haizeak eta aidean ibili zuen aurrean harrapatutako guztia. Teilak, kartelak, lorontziren bat edo beste, igerilekuko kristala eta farola bat ere bota zuen. Santa Kurtz kaleko farola hori herdoiltzen hasita zegoen eta haizeak apurtzeko falta zitzaiola egin zuen. Kotxe baten gainera erori zen berau beste bat ere ikutu ostean. Ez zituen kalte handiak sortu, baina kotxeen jabeek disgusto ederra izango dute. Astelehen goizean bertan horren berri eman zuen kotxearen jabeak udaletxean. Horrelako kasuetarako udalak poliza bat dauka eta bera egingo da sortutako kalte horien kargu.

Kurtzebarri eskolako literatur astea

Literatur astea egin dute Kurtzebarri eskolan aste honetan zehar. H.C. Andersen idazlea hartu dute aurrean gainera, ardatz ipuin eta kondaira klasikoen aberastasuna transmititzeko asmoz. Honez gain, euskal kulturako hainbat idazle


ere gogoan izan dituzte R.M^aDe Azkue, J.M. Barandiaran eta J. Arratibel.

Urtero legez, liburuen inguruan antolatutako hainbat ekintzez gozatzeko aukera izan dute gaztetxoek: irakur maratokia, antzerkiak, ipuin kontalariak...



Kurtzebarri eskolako umeak Zestoan

Kurtzebarri Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko ikasleek Zestoako baserri eskolan 3 egun pasatu zituzten joan zen astean. Bertan, animaliak, ortua, tailerrak eta hauen inguruko ekintza politikak egiteko eta gozatzeko aukera ederra izan zuten



■ HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN LEHEN ESKUTITZ LITERATURA LEHIAKETA Udaberria datorrela eta, urtero ospatzen da Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna. Aurten, Espainiako Haur eta Gazte Liburuaren Erakundeak, herriko liburutegiari eskutitz bat idatziz eta ospakizun horietan parte hartzera gonbidatzen ditu haurrak.

Parte hartzaileak bi taldetan banatuko dira: 6-9 urte bitartekoak eta 10-12 bitartekoak. Lanak Aretxabaletako Udal Liburutegian aurkeztu beharko dira maiatzaren 17a baino lehen.

Har ezazu luma, arkatza edo ordenagailua eta idatzieziaiozu eskutitz bat, liburutegiari, zure liburuzaingari, irakurri dituzun liburuei... eta ondoren eman liburuzaingari. Saritutako eskutitzek liburu multzo bat jasoko dute eta liburutegiari diploma emango zaio. Aretxabaletako Liburutegiak ere talde bakoitzeko bost lan onenak saritu egingo ditu.



GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

Giro polita II. euskal basogintza topaketan

Astebukaeran ospatu zen gure herrian II. basogintza topaketa. Eguakotxean jardunaldi teknikoa izan zen nagusi Zaraia zineman. Euskal baso eta egurraren inguruko hainbat hitzaldi eta mahainguru izan zituzten entzungai bertan bildutakoek.

Zapatuan, berriz, baso azoka egin zen Urkulun. Eguraldia lagun, Korueta

inguruan hainbat postu egon ziren ikusgai: egurrekin lan egiteko tresnak, zuhaitz landareak, zerratze lanak, egurrezko altzariak... Artisau bat edo beste ere bazen bertan. Eguerdi aldera aizkolari, trontzolari eta bertsolariek majo berotu zuten giroa. Atxalbaltarrez gain, kanpotar ugari bildu zen II. euskal basogintzako jaietan.



EzkuTU
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 92 01

REGIENDO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

*Bazkariak
eta
afariak*

MATIKUA

Azatza auzoa
Tel.: 943 79 16 68



AKL ELKARTEAK BATZAR OROKORRA EGIN ZUEN

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteak ohiko batzar orokorra egin zuen martxoaren 31n. Mikel Uribetxebarriak, elkarteko lehendakariak, eta Gotzone Arresek, diruzainak, 1999ko gora beheren eta 2000ko proiektuen berri eman zien bertan bildutako 20ren bat laguni. Batzorde kide berriak ere aurkeztu ziren Goretzi Ayastuy, Mireia Uribetxebarria eta Edorta Mendieta. Goienera elkartearen proiektuari buruzko laburpen txo bat ere egin zen. Bazkideei ez ohiko batzar baterako deialdia egingo zaie aste santua baino lehen, proiektuan sartu edo ez erabakitzeko.



Jendearen parte hartzea behar da aberri egun bateratua antolatzeko

Aberri egun bateratua antolatu nahi da herrian

Aberri egun bateratua antolatzeko batzarra egin zen pasa den zapatuan. Ideia Lore Martinezena izan bada ere, herritar guztien parte hartzea nahi du 2000. urteko aberri egun bateratua aurrera eraman ahal izateko.

Aberri eguna, alderdien eguna bihurtu dela dio Lorek "Lehenengo aberri eguna euskaldun guztiek batera ospatu zuten eta

horixe berreskuratu gura nuke gure herrian". Zapatuan bildutako artean hainbat ideia atera ziren baina jende gehiagoren beharra ikusita, eguakotx honetan, hilak 7, beste batzar bat egingo da udal txeh zaharrea arratsaldeko 7,30etan. Ateak zabalik daude herritar eta ideia guztientzat, beraz, jendea anima dadila oso jai polita antola daiteke eta.

GAZTE TOPAGUNEA 2000 EGINGO DU JARRAIK APIRILAREN 20, 21 ETA 22AN KANBON

Urtero legez, aurten ere gazte topagunea antolatu du Jarraik. Aurten iparraldean egingo da, Kanbon, apirilaren 20, 21, eta 22an. Hiru egun hauetan erakunde nazionalagoa sortu nahi da eta horretarako Jarrai eta Gazte Mugimendua desagertu eta talde berri bat sortuko da. Eztabaida politikoaz gain parranda egiteko ere aukera ederra izango dute bertara joango direnek, kontzertu ugari eta giro bikaina sortuko baita Kanbon, tartean Mikel Urdangarin, Anje Duhalde, RIP, Su ta Gar eta Fermin Muguruza egongo dira.

Urbaltz tabernara jo behar da izena ematera eta hilaren 8a baino lehen apuntatuz gero 4000 pzt. izango da, hortik aurrera 4.500. Aretxabaletako Jarraikoek, gazteak parte hartzera animatu nahi dituzte.

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 943 77 03 08

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaleta

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

Mundukideren truke programak utzitakoa



Kafe tertulia egin zen Hego eta Ertamerikako berri emateko atxabaltarrei

Hego eta Ertamerikako hainbat herrietako zortzi lagun izan dira martxoan zehar gure artean. Mundukide fundazioak lagunduta, Euskal Herria ezagutzeko asmoz etorri baziren ere, euren herrietako egoeren berri ere

eman dute. Martxoaren 22an hain zuzen, kafe tertulia egin zen Aretxabaletan.

Gauza asko izan dituzte ikusi, ikasi eta baita erakusteko ere. Guk ere hango berri hurbilagotik jakin nahi izan dugu.

Merit Evangelista

Txiapaseko San Cristobal de las Casas herrikoa da. Gaur egun kultura institutuko koordinazio arduraduna da eta bertako kultur etxeen garapena bultzatzen dihardu.



- Zertara etorri zara Euskal Herrira?

- Kooperatiben esperientzia ezagutzera. Guk emakume artisauen kooperatibak ditugu eta honen inguruko esperientzien berri eraman nahi dut.

- Zer iruditu zaizu?

- Oso interesgarria. Bi errealitate oso ezberdinak dira baina funtsean filosofia bera da eta edozein ingurunetan aplika daiteke. Hemen industria da nagusi, han Txiapasen ez. Honek, ordea, ez gaitu banatzen, hango garapenerako hemengo zer eraman daitekeen jakin behar dugu.

- Ikusitakotik zer gustatu zaizu?

- Kooperatiba, Unibertsitate eta eskolen artean dagoen lotura. Bakoitzak bere aldetik lan egin beharrean, bat bestea indartu dezan bideratuta dago eta hori oso garrantzitsua da.


- Jendearekin hemengo egoerari buruz hitzegin duzu?

- Bai, hemen ere Txiapasen ditugun arazo batzuk dituzuela konturatu naiz autonomia nahia, euskara ez onartzea... Hona etorri aurretik ez nuen ulertzen ezberdintasuna baina orain argi daukat euskalduna ez dela espainiarra. Han antzekoa gertatzen zaigu indijeno.

Loramendi
kirolak

Udaberrirako prest!!

Arrasaten



EGUZKIGRAF
inprimategia

KOOP. E.
S.COOP.

Tfnoa.: 943 79 18 44
Faxa: 943 79 29 41
E-mail: info@eguzkigraf.com

Araba Ibilbidea
20550 ARETXABALETA
Industrialdea F-0-4

Ford Focus ****
Mercedes Clase A

Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***

Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **

“auto fidagarri, seguru, dinamiko, berritzaile,
zabal, jostagarri eta nortasuneko bat nahi
duzu.
eta aurkitu duzula uste duzunean,
focus agertzen da.

Zeren eta zu zerbait
gehiagoren bila baitzabiltza.

“Erabiltzaile eta kontsumitzaileen
Erakundeak (OCU), “crash test”
delakoaren bitartez egindako
ikerketaren arabera,
Ford Focusen puntuaziorik altuena
lortu du segurtasunean,
beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko
2.064. zenbakian argitaratua




DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

MUGARRI



Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

Eibartarra da, euskal filologiako irakaslea eta euskalkiak defendatzen dituena. Orain hilabete batzuk Deba Ibarreko Euskeria izeneko liburua kale-ratu zuen eta pasa den astean gure artean izan zen liburu hori aurkezteko.



Koldo Zuazo

Deba Ibarreko Euskeria liburuaren idazlea

■ Zer dela eta landu duzu Deba Ibarreko euskara?

■ Hizkuntza aldetik oso interesgarria dela uste dut. Deba Ibarra izatez, Gipuzkoa da baina Bizkaiaikoaren antzeko euskara egiten da eta, gainera, hemen hego partean, Gatzaga eta Oñati aldean, Arabarekin hartu emanak izan dituzue eta Arabako euskararen zenbait ezaugarri ere bizirik daude konturatu naiz.

■ Guk betidanik uste izan dugu gure euskara ez dela batere ona. Zuk zer diozu?

■ Nik ere hori umetatik entzun dut eta eibartarron euskara, zuena baino oraindik txarragoa ei da. Inondik inora ere ez, gure euskara ez noa esatera ona denik baina bai onena bezain ona.

■ Zure liburuan herri aldizkarietan herriko euskara

batua erabili beharko litza-teekela diozu. Zer da "herriko euskara batua"?

■ Bertako euskalkia erabili daitekela diot liburuan eta bertakoa egiten ez bada, hemengo euskara batua izan dadila behintzat. Zer da hori? Euskara batua esaten de-nean askotan uste dugu "bi lagun" dela batua eta ez "lagun bi" edo "lagunarentzat" dela eta ez "lagunarendako" eta inork ez du horrelakorik erabaki, ez da? Beraz, Aretxabaletako telebista eta aldizkarian euskara batua erabili nahi baduzue, konforme, baina bertako berbak erabilia, hemen aittajauna esaten bada ez hasi aitona eta horrelako kontuak esaten.

■ Euskalkientzat ez dago araurik argitaratuta, beraz, non oinarritu beharko ginateke?

■ Hori ez da egia. Orain dela

hogeitamabi urte arte dena euskalkian egiten zen, euskara batua 1968. urtean egin zen. Orain arteko liburu teknikoak eta gauza denak euskalkiren batean egin dira. Batzuk esaten dute "hutsetik hasiko gara euskalkian idazten?", inondik inora ere ez hutsetik, lau mendeko tradizioa dago. Arrasateko XVI. mendeko Garibai historialariak esaterako, bere amamarengandik jasotako kantuak idatzita ditu.

■ Gaurko gazteok euskara batua eta euskalkia nahastu egiten ditugu. Nola zuzendu daiteke hori?

■ Hain zuzen hori da egin beharko dugun iraultza txikia. Orain arte euskara batuarekin ibili gara jo eta fuego, euskara batua aurrera atera behar zelako. Ni konforme dago batuarekin baina mailaz maila egin behar dela

uste dut. Ez da normala lau urtekin ume bat eskolara joatean egun batetik bestera euskara batua sartzea. Egundik batetik bestera, beste euskara bat sartzean umearengan arazoak sortzen dira, bere etxekoen euskara txarra dela pentsatu eta konfidantza galtzen du eta. Etorkizunari begira horrek bere ondorioak ditu, umetatik berbeta bat egiten egonez gero sen bat izaten da. Sen horri esker zer dagoen ondo eta zer txarto jakin daiteke edo sen horri esker hizkuntza sortu egin dezakezu. Gaur egungo hiztunak lorito hutsak dira, buruz ikasi edo irakurritakoa errepikatu besterik ez dute egiten eta zalantza sortzen zaien bakoitzean euskaltzaindiak zer dioen zain egoten dira. Hau ez da normala, hiztunok geuk izan behar ditugu irizpideak eta ez egon beti euskaltzaindiaren zain.

Egunerokoan dago gakoa!

Zein ote da munduko gertaerarik larriena? Zalantzarik gabe, milioika gizon-emakumeren gosea, zapalkuntza ekonomikoa, azpigarapena. Horren aurrean nahiko jarrera aktiboa agertu dugu atxabaltarrok azken urteotan eta hainbat proiektu ipini ditugu martxan. Ez da eskuzabaltasuna, are gutxiago karitate hutsa. Hondasunen banaketa injustoaren aurrean, daukagun erantzunkizunaz jabeturik, jarrera aktiboa hartzea baizik. Duintasunez bizitzeko apostua da. Baina norbere hondasunen zati txiki bat gutxien dutenekin banatzea ere nahikoa ote da?

Horregatik iruditzen zaizkit hain pozgarriak azken egunotan Atxabaltan izandako bi gertaera.

Batetik, Kanpo Zorra deuseztatzeko Herri Kontsulta. Espainiar Estatuan milioi bat botutik gora jaso dituen kanpaina honetan, 866 atxabaltarrek eta herriko elkarte gehienek adierazi zieten Espainiako Gobernuari eta Europar Batasuneko Parlamentuari, injustizia handi hau lehenbailehen ezabatzeko. Eta hau hasera baino ez da izan. Hain garrantzitsuak diren erabaki hauetan herritarren hitza entzuna izan dadin aldarrikatzen jarraitu behar dugu.

Eskerrik beroenak Hiruatxan izenean parte hartzaile guztiei eta, bereziki, antolatzen lagundu zuten parrokiako eta arte martzialetakoz gatzeei.

Bestetik, latinamerikako hainbat herrialdetako esperientzia komunitarioen 8 ordezkari izan dira gure artean, hilabetez. Nikaragua, Guatemala, Chiapas, Ko-

lonbia, Peru eta Ekuadorreko herri indigenek komunitatean antolatu eta lan egiteko duten gaitasunaren berri eman digute. Eskoletara bisitak, hitzaldiak, kafe tertuliak... Askok izan gara bailara guztian harreman honetaz aberastu garenak. Haiek ere hemengo kooperatibetako esperientziak jasotzen aritu dira. Truke programa arrakastatsua izan da beraz, Mundukide Fundazioak antolatu duen hau. Baina honi ere segida eman behar zaio. Izan ere, elkarrekin mundu justoagoa eraikitzeko denon nahi honetan, funtsezko aurrerapausua baita elkar ezagutzeta.

Berdintasunezko harremanak eraikitze bide honetan ordea, eguneroko gure bizimodua aldatzea da klabea. Adiskide batek esan ohi zidan, euskarak legedi barkarra eta berreskuratzeko politika indartsua bai baina, horrekin batera, herritarren eguneroko ahalegina behar zuela, hori gabe ez zegoela etorkizunik gure hizkuntzarentzat.

Gai honetan ere, eguneroko gure bizimodua aldatzen ez badugu, hipokresia hutsa izango litzateke gure hondasunen zatitxo bat elkarbanatuz konformatzea. Milioika gizon-emakumeren pobrezia eta zapalkuntza ekonomikoak ahalbideratzen badu gure kontsumo maila (bizi maila ere deitua), gure kontsumo maila jeitsita bakarrik lortuko dugu haien zapalkuntza ekonomikoa gainditzea. Gutako bakoitzaren eguneroko erabakietan dago gakoa, hizkuntzarena bezalaxe.

Xabier Sarasua



Baserriak eta lur sailak salgai, Aramaio, Apotzaga, Arrasate, Elorrio, Bergara eta Soruluzen.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02



Transakzio, eragiketa fiskal eta judizialak egiteko tasazioak.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02



Eskaera handia dela eta, saltzeko edo alokatzeko pisuak behar dira Aretxabaletan.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02

IBARRA
ESTANKOAK



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77



Markoleko etxeak egin zirenetik, etxebizitzaren prezioa izugarri igo da

Bizitzeko lekua gero eta garestiago

Oraintsu kaleratutako datuen arabera Aretxabaletako etxebizitzek izan dute igoerarik haundiena Gipuzkoa mailan. Jende nagusiak igogailudun etxe berriak gura ditu eta bikote gazteek bizitzeko etxea, berria nahiz zaharra. Bailarako egoera ekonomiko onak eta kredituak interes bajaran egoteak etxe gosea sortu du. Gose horrek, ordea, etxeen garestitzea ekarri du, baita garestitu ere.

Etxebizitzaren prezioek gora egin dute azken urtebete honetan, eta nola egin ere. Etxe berriak, jadanik, 30 milioitik gora daude eta asko, 40 milioi inguruan. Baina bigarren eskuko etxeak ere ez dira atzera geratu. Orain urtebete 13 milioi ingu-

ruan saldutako baten parekoagatik, orain, 22 eskatzen dute. Dirua baino garrantzitsuagoa maitasuna omen da baina gaurko gazteek ez daukate batere samur euren maitasunarentzat bizilekua aurkitzeko orduan.

Zergatik hain garesti?

Jendeak etxebizitzak nahi ditu baina ez dago denentzako adina etxe. Horixe da etxebizitzaren garestitzearen arrazoi nagusia. Kredituak bestalde oso interes bajaran daude momentu honetan eta banketxe eta kutxek oso samur ematen

dituzte. Dirua errez eskuratzeko moduan jarrita, jendea etxebizitzaren bila hastera animatzen da.

Lurzoruaren prezioaren igoera ere aitatu beharra dago. Enpresa eraikitzaileek euren artean subasta antzeko zerbitu egiten dute lurra eskuratzeko.

Bata bestearekin borrokan hastean prezioek gora egin dute eta azken aldian asko gainera. Kasu honetan, etxe eraikitzaileak eura dira lurzorua eta beraz etxea garestitzen dutenak.

Azkenik eraikuntza eta hiriztatze kostuek ere gora egin dutela esan baina inola ere ez etxeen proportzio berean.

Enpresa eraikitzaileek, nola ez, zeresan handia dute igoera horretan. "Dena igo da. Langileen gizarte segurantzak gora egin du, materialeen prezioak igo egin dira, adreilu batek lehen 16 pezeta balio zuen eta orain 35 edo 38, porlanak ere gora egin du... Lurraren espekulazioak ere badu bere kulpia. Zer egiten du administrazioak? Babes ofizialeko etxebizitzak egin ditzala" dio Aladinok, Bama enpresa eraikitzaileko nagusiak.

Inguruko herriek ere, kasu honetan Arrasatek, badute eraginik asko. Biztanleria igoera eta etxebizitza kopuru igoera ez dira parekatuta joan Arrasaten. Ondorioz jende askok inguruetako herrietara alde egin du, Aretxabaletara

esaterako. Orain zortzi urte Arrasateko eta Aretxabaletako pareko bi etxebizitzaren artean 8 milioiko aldea zegoen. Gaur egun ia parekatuta daude.

Etxe ugari datoz hamar urteren buruan

Batek baino gehiagok galdetuko du nola den posible inoiz baino etxe gehiago egiten ibili eta etxe falta egotea. Momentu honetan hainbat etxebizitza daude bukatzekotan: Loramendi aldean, "Villa Genoveva"n, 32 izango dira, Belorrietan bukatzeko falta direnak 40, Ilargi plazan 52 eta Santa Kurtz kalean, Iturrigorri frontoi parean, 29. Hauek gehientsuenak, denak ez esatearren, salduta daude.

Eta hemendik urte batzuk barru zer? Udaleko hi-

rigintza sailarekin hitzegindakoaren arabera ez dago larritzeko arrazoirik. Arau subsidiarioak aste batzuren barruan onartuko dira eta horien arabera hainbat lur sail gorde dira etxebizitzak egiteko. "Bi hiru urtera begira administraritzak, hau da udalak, muturra sartu behar du gai honetan" dio Luis Errasti hirigintza saileko zinegotziak.

Arau subsidiarioekin, lurzorua antolatu eta sailkatu egiten da. Beroa lantegia kokatuta dagoen lurra orain arte, lur industrial izan da orain kalifikazio berriarekin, berriz, bizitzeko lurra izendatuko da. Beroa Baintxeko industrialdera pasatu eta etxebizitzak egingo dira hor.

Kiroletxetik hasi eta Lau-

sitaraino erreka beste aldean geratzen den lur saila ere, bizitzeko lurra izendatu da. Arauetan agertzen denaren arabera 345 etxe egingo dira bertan. Azkenik Bedarretan ere badago etxeentzat lekua.

Konponbideak

Etxebizitzak inoiz ez dira merkeak izan baina hain garestiak ere ez. Herritar guztien eskura egoteko irtenbide bat udala lurren jabe egitea da. Udalak lurrrak izanez gero, bere esku edukiko luke nolako etxeak egin esatea, babes ofizialekoak, esaterako.

Beroa lantegia Baintxera eramateak kostu handia dauka. Hori kontuan izanda ezinezkoa da bertako etxeak babes ofizialekoak izatea. Errekaz beste aldean, berriz, bai, udalak lurrrak erosita ditu eta babes ofizialeko etxeak egingo dira, 345 etxeetatik %65 hain zuzen. Dena batera ez da garatuko baina plan partziala bideratzerakoan berak esango du atalak nondik nora joan behar diren.

Bedarretan ere badago bizitzeko lur izendatuko

**"Errekaz beste aldean udalak
lurrrak erosita ditu eta babes
ofizialeko etxeak egingo dira, 345
etxeetatik %65 hain zuzen"**




den beste sail bat. Bertan etxebizitza sozialak egiteko asmoa dago eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Etxebizitzaren inguruko sailarekin hitzarmena sinatzekotan dira. Udalak, lurra, lagapenean utziko dio Eusko Jaurlaritzari eta honek, etxeak egingo ditu, 14 hain zuzen. Etxebizitza sozialak, soldata oso bazuak dituztenentzat izango dira eta ez dira salgai jarriko, alokagai baizik. Argi dago eskaera egiten duten guztientzat ez dela egongo beraz, zozketa egin behar da.

Beroa eta erreka beste aldeko etxeek ez dute datarik baina orokorrean irailera etxebizitzaren inguruko etxebizitza gaitu aurreratuta egotea espero da eta Bedarretako kasuan urte eta erdi ingururako gaia jorratuta egongo da.

Hutsik dauden etxebizitza ugari

Urte gutxiren buruan etxebizitza ugari egin badira ere, Markole eta Belorrieta esaterako, Aretxabaletako biztanle kopuruak ez du gora egin. Nola uler daiteke hori? 1984ko arau subsidiarioen arabera etxebizitza bakoitzeko 3 biztanle eta erdi zeudela esaten zen. 2000ko arauetan, etxe bakoitzeko 3 biztanle hartu da kalkuluak egiteko, hau, ordea, ez da egia. Aretxabaletan 2.000 etxebizitzatik 2.300era igo da. Horrek, ordea, ez du esan gura 900 biztanle gehiago daudenik, ezta gutxiago ere.

Beraz hutsik dauden etxebizitza ugari dago gure herrian, 300etik gora. Etxebizitzak erosi edo alokatu guran dabilzanak sarritan



“Hutsik dauden etxebizitzekin ezer gutxi egin daiteke momentu honetan baina poliki-poliki gaia aztertzen hasi behar gara”

kexatu ohi dira ezer egiteko ez dagoen. “Ezer gutxi egin daiteke momentu honetan baina poliki-poliki gaia aztertzen hasi behar gara” dio Luisek. Irtenbide bat aurkitu guran, kontribuzioak igotzeko posibilitatea begiratzeko hasi ziren. Legeak ez onartzeaz gain, ez zela konponbide egokia ikusi zuten udalean. Luisek esanetan “zigorrak jarri behar behar bada sariak eman behar ditugu. Oso gai zaila da eta aukera ezberdinak aztertu behar ditugu”.

Hutsik dauden etxe hauek alokagai jartzea konponbide bat izango litzateke. Izan ere alokairuan hartuko liratekeen etxeen eskaria ere handia baita, begiratu besterik ez dago Aretxagazetako aretxazoka sailean. Mondragon Unibertsitateak kanpoko ikasleak ekarri ditu eta Bilbo ingurutik hona lanera datozen langileak ere ugari dira. Hauek guztiek aste barruan egoteko etxeak nahi dituzte eta eskaerak gora egitean prezioek ere

gora egingo dute.

Bigarren eskuko etxeak

Bailarako etxeak saltzen dituzten edozein ajentziara joz gero, bigarren eskuko etxeak agertu orduko saltzen direla dio. Saltzaile askok, gainera, dagoen eskaera ikusita, bere kontu saltzen du ajentziara jo gabe.

Etxebizitza berriek gora egin dute baina bigarren eskukoek ere bai, proportzioan, berriek baino gehiago gainera. Etxe berrien 30 edo 40 milioitara heldu ezin diren gazteek gura dituzte bigarren eskukoak. Baina hauek ere ez daude batere merke, momentu honetan 20 milioitik gora ari baitira eskatzen eta ordaintzen. Igogailurik gabe, berogailurik gabe, eta 30 urtetik gora dituen etxe baten truke 20 milioitik gora eskatzea ez al da gehiegizko? Begibistako bi arrazoi ditu igoera honek. Batek, etxe zaharra saldu eta berria eskuratu nahi duenak ahalik eta etekin handiena atera gura dio bere etxeari. Bestetik, jendea etxe beharrean dago eta baita edozein prezio ordaintzeko gertu ere.

Gazteak gero eta beranduago ateratzen omen dira gurasoen etxetik, etxeak eskuratzeko dagoen panorama ikusita, normala. Ez dakigu noraino igoko diren etxebizitzaren prezioak. Ezta noiz arte iraungo duen egoera ekonomiko honek ere. Luze izan dadila, jendea kredituetan goraino sartuta baitago. Makina bat burukomin etxebizitza aurkitzeko orduan, gustokoa hartzen bada behintzat gaitzerdi.




Mendia

Iñurrategi anaiak Manasluko kanpo basean. Iñurrategi anaiek elurrez bete ta aurkitu dute Manaslu mendira igotzeko kanpo basea, beraiek esan bezalaxe, bi metro inguru izango dituzte oinpean. Eguraldiarekin, bestalde, ez dute kexatzeko arrazoirik, izan ere, oso eguraldi ona dute, tontorra egiteko modukoa. Dena dela, hasierako egun hauek ordena jarri eta mendiari lasai begiratzeko hartuko dituzte.



Pala

Palako final laurdenak jokatuko dira apirilaren 8an. Pala txapelketa aurrera doa eta dagoeneko ligaska amaitu da. Hori dela eta, datorren apirilaren 8an, zapatua, final laurdenak jokatuko dira kiroletxean. Partiduak arratsaldeko 4etan hasiko dira eta honen jarraian lau norgehiagoka jokatuko dira. Horren ondoren, apirilaren 15ean, final erdiak izango ditugu eta hurrengo egunean 3. eta 4. postuekin batera finala jokatuko da.



Txirrindularitza

Iban Sastrek zorte txarra Euskal Herriko itzuliko lehen etapan. Euskal Herriko itzulia korritzen ari da Iban Sastre Festina taldeko txirrindularia. Aurtengo hau profesioaletako lehen urtea du eta taldekideei laguntzen burubelari dabil 20 urteko txirrindularia. Lehen etapan ez zuen zorte haundirik izan, izan ere, tropelean zozala katea atera zitzaion eta atzean gelditu zen. Dena dela, oraindik baditu egunak lan txukun bat egiteko.



Mendia

Hiru atxabaltarrek Gasherbrum Ila igo nahi dute. Datorren ekainaren hasieran Eneka Guenetxea, Luis Urkia eta Jesus Arregi Pakistan aldera abiatuko dira Gasherbrum II mendiren tontorra zapaltzeko asmoz. Pakistanen bi hilabete inguru egongo dira, lehenengo aklimatatze lanak egin, eta ondoren, uztaila aldera aipatutako mendira igotzeko. Hirukotea gogor entrenatzen ari da mendi espedizio horretarako.

Aitor Etxenausiak Arrasateko errugbi taldean jokatzen du. Kirol hau beti izan du gogoko hemeretzi urteko atxabaltar honek eta orain bi urte inguru erabaki zuen taldean sartzea.

Aitor Etxenausia

Arrasateko errugbi taldeko jokalaria

■ **Aitor, nola hasi zinen errugbia praktikatzen?**

■ Lehen futboleko jokatzen nuen eta ez nabilen oso gustura. Orduan errugbia probatu nuen, betidanik gustatu zaidan kirola baita, eta taldean jarraitu dut gaur egun arte.

■ **Errugbia gorputz gihartsu eta haundia dutenen kirola dela pentsatu izan da. Ados zaude?**

■ Topiko horrek ez du zertan horrela izan behar. Ezaugarri desberdinetako kirolariak behar dira errugbian, azkarak, gorputza eta indarra dutenak... Azken finean talde lana oso garrantzitsua da, eta ezaugarri desberdinetako jokalariai behar dira.

■ **Zu zeu nolako jokalaria zaitugu?**

■ Nik defentsan jokatzen dut, beraz, indarra egin behar dudun horietakoa

naiz. Bi jokalaria mota desberdinu daitezke errugbian: indarra egin eta aurkariaren joko aputu behar dutenak, alde batetik, eta abiadura haundia erakutsi behar dutenak, bestetik.

■ **Zer da futbolak eskaini ez dizuna baina errugbiak bai?**

■ Hemen errugbia ez da futbola bezalakoa. Ez du horrenbeste indar, beraz, kirol "apalagoa" dela esan daiteke. Guzti honetan politena zera da, zelaian beste taldekideak aurkariak badira ere, zelaitik kanpora lehia hori desagertu egiten dela. Talde desberdinetako jokalarion arteko giro on hori nabarmenduko nuke errugbian.

■ **Errugbia oso kirol sakarra ere bada.**

■ Kanpotik kirol sakarra ematen du, hori egia da. Hala ere, jokalarientzat ez da horrenbestera. Bai talde

bateko zein besteko jokalaria, biek egiten dute indarra, eta hortaz, golpea ez da ematen duen bezalako haundia. Aurkariarengana bildur barik joatea da garrantzitsua.

■ **Nola dago Arrasateko taldea ligan?**

■ Bi partidu bakarrik gelditzen zaizkigu eta bigarren postuan gaude. Bigarren postu hau ziurtatuta daukagu, dena dela, zaila izango da lehenengo postua lortzea, puntuazioz oso urruti baitago. Azken hauek zuzenean igoko dira gora, eta bigarrenak beharbada promozioa jokatuko du.

■ **Eta jokalarientzat promozionatzeko zein aukera eskaintzen du errugbiak?**

■ Euskal Herrian errugbia bigarren mailako kirola denez, ez dago gora igotzeko aukera haundirik jokalariontzat. Horretan ez du ez fut-

bolaren antzik.

■ **Nola konbentzitu zenuke errugbian jokatu nahi duen pertsona bat?**

■ Ohiko kiroleatik desberdina da. Joko interesgarria izateaz gain, oso kirol polita da. Horrez guztiaz gain, taldean dagoen giroa azpimarratuko nuke. Gustatuz gero merezi du errugbian jokatzea.





Landako urtegia egokia da piraguan ibiltzeko

Piraguismoak gero eta zaletu gehiago

Azken urteotan piraguismoak indarra hartu du herrian. Udaberri aldera, gainera, piragua zaletuak gehitu egin dira inguruko erreka eta urtegiatan.

Hau kontuan izanik, Murruxiko mendi elkarteak piraguismoa ekipamendua prestatzen burubeltzari aritua da. Oier Aranzabal taldeko kideak jakinarazi digunez, aurten errekarako bi piragua berri erosi dira dagokien ekipamenduz: neoprenoak, arraunak... Hori gutxi balitz, lehendik dituzten zortzi piraguentzat ere ekipamendua berritu da.

Piraguak erabiltzeko taldeko bazkide izatea eta federatua egotea beharrezkoa da. Federatzeko kuota 3.000 ptakoa da eta materiala erabiltzeko 200 pta ordainduko da eguneko. Interesatuta daudenak martizenetan arratsaldeko 7:30etatik 8:30etara bitartean Murruxiko lokaletik pasa daitezke.

Gai honekin lotuta, bestalde, datorren apirilaren 12an, ekipamenduaren erabilera zehazteko batzarra egingo da Murruxiko lokalean arratsaldeko 7:30etatik aurrera.

Piraguismoarako inguru aproposa

Piraguismoa praktikatu ahal izateko inguru pribilegiatua bizi gara Oierren iritziz. Hemen inguruan Albina, Uribarri eta Landako urtegiak leku aproposak dira horretarako. Aipatutako lekuez gain, abentura gehiago nahi izanez gero, itsasoa ere travesia politak egin daitezke piraguaz. Oierrek, esaterako, Debatik Saturranera arteko ibilbidea proposatzen digu. Eta ausartentzat Bidasoa, Urdaibai eta Pirineotako ibaiak daude.

■ ARRASATE KIROLAK TALDEKO TXIRRINDULARRIEK LAN TXUKUNA EGIN ZUTEN

Dorletako Ama txirrindulari eskolako infantilek Elgoibarren korritu zuten joan den astebukaeran. Taldetik Jon Lete eta Eddy Perez infantilek hartu zuten parte. Bi txirrindulariek lan polita egin zuten, lehena laugarren postuan sartu zen eta seigarren bigarrena. Karrerako irabazlea, bestalde, Igor Sagardobil Lan Mobil taldekoa izan zen.

Datorren asteko karrera Aretxabaletan izango dute infantilek arratsaldeko 4:30etatik aurrera industrialdean.

JMA taldeko kadeteek Lazkaon izan zuten karrera. Guztira 78 txirrindulari aritu ziren proban, horietatik JMA taldetik sei txirrindulari. Taldetik helmugaratu ziren lehenak Aitor Elorza 9. postuan eta Iñaki Juldain 11. lekuan izan ziren.

■ UIZIRA IRTEERA

Zaraia mendi taldeak Nafarroako Uizi herrira irteera egingo du apirilaren 20, 21, 22, 23 eta 24an. Egutero mendi irteerak egingo dituzte. Joan nahi izanez gero Zaraia mendi taldean izena eman behar da.

Taberna Berri



Taberna Berri
jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67



Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Gazte-gaztea zela bere jaioterrria utzi eta hizkuntzak ikasteko Europara joan zen Dominika Madinabeitia. Egun euskara eta gaztelera gain, frantsesa, alemaniera eta ingelesa ere badakizki. Hizkuntzak munduan barrena mugitzeko beharrezko giltza direla garbi du mendiolar honek.

Dominika Madinabeitia

"Munduari buelta eman nahi nioke"



■ Zergatik atzerrira hizkuntzak ikastera?

■ Munduan zehar ibiltzeko hizkuntza erraminta garrantzitsua zela konturatu nintzen. Frantsesa ikastea nahi nuen eta ez nuen ez libururik ez hiztegirik aurkitzen. Beraz, Frantziara joatea pentsatu nuen.

■ Nondik nora ibili zinen?

■ Hogei urterekin Parisera joan nintzen eta bi urte egin nituen bertan ikasten eta lanean. Gero alemana ikasteko Alemanian bizi izan nintzen bost urtez. Handik bueltatutakoan, berriz, ingelesa ikasi nuen.

■ Orduan bazegoen hizkuntzak ikasteko ohiturarik?

■ Ez, batere ez. Dena dela, gure familian osaba eta izeba misiolari kanpoan ibilitakoak dira eta horrek eragina izan zuela uste dut.

■ Beraz, bost hizkuntza.

■ Bai. Neuk behar izan dudana mailan landu dut bakoitza.

■ Eta orain nekazaturismo etxean eta gazteei hizkuntzak irakasten buru belarri zabilta.

■ Bai, baserriari irteera bat emateko nekazaturismo etxea jarri genuen. Horrez gain, hizkuntza klaseak ematen dizkiet gaztetxoiei.

■ Hizkuntzak ikasteko erraztasuna duzu?

■ Ez, ez dut uste. Denbora asko eskaintzeaz gain borondate handia izan dudala uste dut.

■ Beste hizkuntza baterako badago lekurik zure buruan?

■ Urteekin aurrera gauzak soseguz eta poliki egiten dira eta denbora asko behar da. Ideia hori ez nuke baztertuko baina lehenetsuna beste proiektu batzuek dute.

■ Proiektuak aipatu dituzu.

■ Bai, baserriaren museoa, lorategia... jarri nahi nituzke. Horrez gain, osasunak laguntzen badit behintzat, munduari buelta ematea da nire ametsetako bat.

■ Geldi egoten ez den emakume horietakoa zaitugu, noiz jubilatuko zara?

■ Urte batzuk falta zaizkit jubilatzeke baina dagoeneko erritmo lasaia daramat lanean.

■ Zer esaten dute Mendiolarara datozen kanpotarrek?

■ Hemengo kultura, paisaia, gastronomia... sorpresa handia izaten da gehienentzat.

■ Bizitzeko lan egin ala lan egiteko bizi?

■ Bizitzeko lan egin, hori garbi daukat.


■ Hizkuntzak ikasteko hiru aholku.

■ Helburu batekin ikasteaz gain, gogoia eta motibazioa izatea.

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABAleta

Dorleta
taberna

Bezereoen zerbitzura

Loramendi, 8
☎ 943 79 94 15

LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabala:


Batxilergo Teknologikoa, **Eslola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.



Arizmendi

Larrin Plaza,1
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

OKENDO
KIROLAK





Kontu ugari

Etxebizitzan prezioak gora eta gora egiten duela, baina horrek izango du noizbait amaiera ez? bestela noiz botako ete ditut nire seme-alabak etxetik! Gaurko gazteok ez duzue erronka makala! Bizi guztia zorretan egon behar etxetxo bat erosteko. Lehengo kantu zahar hura baino hobeto legoke gaur egun "txin, txin, txin, txin, etxeak gorantz, horretxek ematen dit maitia kakalarri latza..."

Baina ez dira etxebizitzan prezioak gorantz egiten duten bakarrak, ezta Iñurra-tegi anaiak ere. Oraingoan beste lagun batzuek hartuko dute Pakistanerako bidea: **Eneka Guenetxea, Luis Urkia eta Jesus Arregik.** Gasherbrum II mendiarren tontorra zapaldu nahi dute.

Joan diren beste batzuk, nire lankideak izan dira, bi urte aidean pasatu zaie **Go-tzone, Gorka, Aitor, Gurutze eta Koldori.** Pasa den eguenean, batzar orokorren ondoren, Mendiolan egin genuen afaritzoan agurtu genituen. Esperientzia polita izan dela esaten zuten denek aho batez eta era berean, sartu berriei, hau da, **Goretti, Edorta eta Mireiari** animoak ematen zieten beste bi urteetan zehar herrikideoi hamabostero ilusiotxo hau eskaintzeko. Mila esker, beraz, joan

direnei eta baita sartu berriei ere, zela ez. Egia esan, lankide berriak topatzen gogor saiatu gara eta kalabaza batzuk ere jaso ditugu. Hurrengoan, zu izan zaitezke eta ez eiguzu hutsik egin, konforme? Azken finean, herrikideon artean egindako aldizkari bat izatea besterik ez dugu nahi.

Eta beste txutxumutxurik? Ah, bai! Urteroko futbol partidua jokatu ei zuten pasa den zapatuan Apotzan... zergatik pentsatu duzu mutilek jokatu zutela... ba ez! neska kuadrila bat izan zen eta fans-en batzuk ere izan omen zituzten, gainera. Datorren urterako lehen mailako gure euskal taldeen entrenatzaileak gonbidatu beharko dituzte, ea zerbait hoberik ateratzen duten. Beno, eskerrak pata-teroak behintzat itxuroso dabilzan.

Eta ikusi zenuten **Haritz Bedia** ETBn? txakur arriskutsuei buruzko debate antzeko batean egon ei zen, eta urduri samar gainera. Bera txakurrak hezitzeko ikastaro batean dabil eta horregatik deitu omen zuten.

Beno, finito, agur benur, hurrengoan egun bat lehena gozatu gara, nik ere egin baitut Aste Santurako plana.

M. J. Arretxe



Sekretua liburuan dago, liburuan sekretua dago

Jakinminez eta egonezinez beterik negoen. Agure Handiaren oinetara eserita, bere kantua entzuten ari nintzen. Abesten zuenean harriak hain arin bihurtzen zirenez, ur gainean flotatzen zuten. Abesten zuenean, uharteak lakuko uretan barrena ibiltzen ziren. Abesten zuenean, zerua izarrez betetzen zen. Abesten zuenean, goian zegoena behera zihoan eta behekoa gora.

- Noiz bihurtuko naiz egiazko azti? galdetu nion, belusezko kaparen ertzetik tiraka.

- Laster - esan zuen Agure Handiak eta kantuan jarraitu zuen. Bere katuaren ilea dirdirka hasi zen. Buztana tente jarri zitzaion. Nik ikusterik ez nuen zerbait ikusten zuen.

- Gazteegia izateagatik al da? - galdetu zuen jakinminez.

- Ez - erantzun zuen Agure Handiak eta kantuan jarraitu zuen. Txori esploratzaile bat aztiaren sorbaldan pausatu zen eta mokoaz lumak txukundu zituen. Gero burua biratu eta adi-adi begiratu zidan bere txori-begiez.

- Baxua izateagatik al da? - nire galdera.

-Ez. Ez dago altueraren baitan- esan zuen Agure Handiak eta abesten jarraitu zuen. Bere kantuak dardarka jarri zituen zuhaitzen adaburuak.

Haizeari indartsuago putz eginarazi zion eta laster txistuek eta marmarrek inguratu gintuzten. Haizeak adar iharrak bota zituen. Zuhaitzen kurrinka bortitzek beldurtu egin ninduten eta burua makurtu nuen oinetara begiratzeko.

- Behatzak txikiegiak al dauzkatz? - galdetu nuen.

- Nola esan duzu? - harritu zen aztia, niri begirada harrtua egotziz. Zuhaitzak isildu egin ziren.

Eskuak eta behatzak erakutsi nizkion.

- Azti batek esku handiagoak izan behar al ditu? galdegin nuen.

- Ez - esan zuen Agureak eta irribarre txiki bat egin zidan.

Sastraka batetik lore bat hartu eta usaindu egin nuen. Usain goxoa zeukan.

Jakinminez eta egonezinez beterik nengoan. Ez nuen gehiago zain egon nahi. Jaiotzetiko aztia nintzen, baina indarra falta zitzaidan. Ez nekien nola eskuratu. Katuaren ile distiratsuari begiratzen nion. Aztiak sorgindutako harriak airean hegan zebiltzan. Berrero galdetzea erabaki nuen:

- Noiz izango naiz...? - ekin nion berriz.

Zakutik liburu bat ateratzeko makurtu zen orduan Agure Handia. Zuhurtasunez irribarre egin eta esan zidan:

- Sekretua liburuan dago, liburuan sekretua dago.

Hannele Huovi

Denetik

Solarium-a salgai.
Prezioa: 45.000 pta.
Goizez deitu 943 79 68
63 telefono zenbakira.

Eraztuna galdu nuen aratusteetan. Balio sentimental handia du niretzat. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu 943 79 34 70 telefonora.

Bi salmahai eta apalategi metalikoak salgai. Deitu: 666957983

Aratuste domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Aretxabaletan.
Tel.: 945 44 52 00.

Opel Astra GSI 115 cv salgai. 1993. urtekoa.
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Zorro urdina duen argazki kamara galdu nuen aratuste domekan. Ricoh markakoa. Deitu 943 79 86 21 telefonora.

Opel Kadet GSI 2000 16 v salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 75 11/79 98 08 (Mikel).
Kotxea salgai Renault 21

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

TXE. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Zaldia baldin baduzu eta nirea zaintzeko prest bazaude, tratu batera helgaitezke. Tel.: 943 79 21 86. (Jonegatik galdetu).

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan.
Tel.: 626379326.

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosikotuke. Tel.: 943 79 77 85.

Opel Corsa 1.2 salgai. 8 urte. Egoera onean.
Tel.: 943 79 12 85.

Peugeot 806 (7 plazatakoa) 2.0 gasolina.
Tel.: 607 15 30 70.

Etxebizitza

Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan.
Tel.: 945 17 28 13 edo 943 79 49 18.

57 m²ko garajea salgai edo alokagai Errekabarren kalean.
Tel.: 943 79 74 73.

Gela bat alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 05 28.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan.
Tel. 649 16 86 69.

Garajea alokagai Santa Kurtz kalean 24. zenbakian. Tel.: 943 79 16 24.

Herriko plazan lokal bat saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera onean.

Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhua).

Hiru-lau langilek pisu bat behar dugu alokairuan hartzeko. Jatorrak gara eta etxea ondo zainduko dugu. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhua)

Logela bat alokatzen da, pisu konpartitu batean Arrasaten.
Tel.: 943 79 23 96.

Etxe bat alokatuko genuke Aretxabaletan edo Arrasaten.
Tel.: 646699843.

Pertsona batek Aretxabaletan pisu bat konpartitzeko beste pertsona bat behar du. Egunez deitu: 943 74 80 00 telefonora eta gaeuz 943 77 18 72 telefonora.

Garajea salgai/alokagai Murubiden.
Tel.: 639418106.
(Ilunkaran deitu).

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

Lana

Lurrin eta kosmetika enpresa multinazionalak saltzaileak behar ditu.
Tel.: 670 27 04 96.

Talde buruak eta komertzialak behar dira. Bitxien eta Gold Field-en kalogorak eskaintzen ditugu.
Tel.: 670 27 04 96.

Astebukaeretakako zerbitzaria behar da Mendiola jatetxerako.
Tel.: 943 71 43 45.

Enpresa zientzietan lizentziatua lan egiteko prest.
Tel.: 943 79 89 92.

Lan deialdi publikoak

Elgetako Udala. Udalerako erdi-mailako kirol teknikaria. Epea: Apirilak 12.

Elgetako Udala. Kultur, euskara eta turismo teknikaria. Epea: apirilak 12.

Elgetako Udala. Administrazio kontablea. Epea: apirilak 12.

Euskal Herriko unibertsitatea. Unibertsitate-eskolako irakasle titularra. Apirilaren 25a.

Euskal Herriko unibertsitatea. Unibertsitate katedradunak. Lanpostu kopurua: 2. Epea: apirilak 25.

Euskal Herriko unibertsitatea. Unibertsitateko irakasle titularra. Lanpostu kopurua: 2. Epea: apirilak 25.

Eusko Legebiltzarra. Itzulpena-interpretatzailea. Epea: apirilak 10.

Eusko Legebiltzarra. Giza baliabidetako teknikaria. Epea: apirilak 10.

Eusko Legebiltzarra. Informatika-teknikaria. Epea: apirilaren 10.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

HIRU ELEKTRIZISTA. Arabako lautada.
Erref.: 30646/2

MODELISTA. Arabako lautada.
Erref.: 29426/2

PRODUKZIO ARDURADUNA. Deba Behea.
Erref.: 29771/2

MEKANIZATUKO OPERATZAILEA. Durangaldea.
Erref.: 30516/5

GARRAIOLARIA. Durangaldea.
Erref.: 30267/1

URBANIZAZIOKO MANTENU ARDURADUNA. Durangaldea.
Erref.: 30277/1

IRAKASLEA. Gasteiz.
Erref.: 30652/3

PROGRAMATZAILEA. Leintz Gatzaga.
Erref.: 29277/3

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tel.: 943 79 23 43

AMETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tel.: 943 79 01 29
Aretxabaleta

BAZTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETAKO

AZKARATE ARROZTEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETAKO
943 77 01 24

T
X
I
L
A
R
R
A

ELIKADURA BEREZIA



Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETAKO

APIRILA**7 EGUAKOTXA**

■ **ABERRI EGUNAREN INGURUKO BATZARRA**
Gure herrian aberri eguna antolatzeko batzarra izango da udaletxe zaharrean arratsaldeko 7:30ean. Interesatuta zaudeten guztiok gonbidatuta zaudete.

8 ZAPATUA**■ TXIRRINDULARI KARRERA**

Dorletako Ama txirrindulari taldeko txirrindulariek Aretxabaletan izango dute karrera. Arratsaldeko 4:30ean Aretxabaletako industrialdean.

9 DOMEKA**■ ATZEGI TALDEAREN KANPAINA BERRIA**

Aratz taldeak Atzegi taldearen kanpaina berria azalduko du domeka goizean zehar herriko kaleetan.

■ TXAKUR LERAK

VII. txakur lera lasterke-ta egingo da Bergarako Gorla auzoan goizeko 11etatik aurrera.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Legutiano-Otxandiano-Urkiola-Otxandiano-Legutiano-Landa-Aretxabaleta. 71 km.

■ MENDI IRTEERA

Zaraia mendi taldeak Urtemondora irteera egingo du.

13 EGUENA**■ MARGO TEKNIKAK**

Tril emakume taldeak antolatuta Iñigo Arregi arrasatearrak margo teknikei buruzko ikastaroa eskainiko du arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrean.

15 ZAPATUA**■ ERRAMU ZAPATUKO FERIA**

Goizean feria, bertsolariak, ardi latxa eta gaudu erakusketa... Gauean Lizaso, Egaña, Peña, Sarasua, Irazu eta Mendikute bertsolariak.

16 DOMEKA**■ DEBA GOIENeko DANTZARI EGUNA**

Dantzari eguna ospatuko da Arrasaten.

■ ZIKLOTURISTA IRTEERA

Aretxabaleta-Arrasate-Kanpazar-Elorrio-Durango-Bernagoitia-Durango-Elorrio-Kanpazar-Arrasate-Aretxabaleta. 74 km.

20, 21, 22**■ GAZTE TOPAGUNEA 2000 KANBON**

Gazte topagunea egingo da Kanbo herrian Jarraik antolatuta. Izen ematea Urbaltzen egin daiteke.

BEKAK**■ KARLOS SANTAMARIA VI. IKERKETA BEKA**

Hainbat gairen inguruko lanak aurkez daitezke: multimedia eta telematika, kultur industriak eta azpiegiturak, ingurugiroa, konposatu berriak, Euskal ekonomia eta enpresa... Epea: 2000ko maiatzaren 19a. Informazioa: Donostiako Euskararen Udal patronatua. Tel.: 943 42 47 17.

■ ATZERRIAN**GRADUONDOKO IKASKETAK**

Atzerriko unibertsitate eta ikasketa-guneetan. Estatu Batuak, Frantzia, Japonia, Alemania eta Kanadan. La Caixak antolatuta. Epea: 2000/06/30. Frantzia: 2000/05/31. Helbide elektronikoa: <http://www.lacaixa.es>.

LEHIAKETAK**■ URRETXU ETA ZUMARRAGAKO LEHIAKETAK**

Urretxu eta Zumarragako Udalek hainbat lehiaketa antolatu dituzte, horien artean, argazki, komiki eta pintura lehiaketa. Informazio gehiago bi herri hauetako kultur bulegotan.

BALITXAKUK (Hikaz berbetan)

Zorion agurrak



Ibon Perez de Labeaga Unanue
Apirilak 3
Zorionak eta muxu haundi bat. Gorka, aita eta amatxo.



Idoia Unanue
Apirilak 5
Zorionak. Ramon, Gorka eta Ibon.



Ana Larrañaga
Apirilak 14
Zorionak. Endikaren partetik.



Endika Martin
Apirilak 14
Zorionak. Nahia, Ane, Karlos eta Inma.



Edorta Belategi eta Akaitz Garai
Apirilak 15
Zorionak bikote. Noizko bi trago horiek? Koadrilakoak.



Iratxe Benitez
Apirilak 20
Zorionak. Amatxo, aitatxo eta Jone.



Jon Zubia
Apirilak 28
Zorionak. Mariasun, Aitor eta Endikaren partez.

Txistuak • Txaloak

Komertzioaren munduan, zoritxarrez, ez gaude euskaraz idatzitako testuak ikustera ohituta. Horregatik oraingo honetan **txaloa** herriko komertzio batek eramango du. Herrian kartelak, errotuloak eta euskararen erabilera arautzen duen araudia egon arren, sarri gure herria eta hizkuntzari errespetu gutxi erakusten dioten rotuloak ikusten ditugu. Beraz, interes komertziala euskararen erabileraren gaintetik dago. Loramendi euskara elkarteak hortan lanean ari da, baina ez du batere lan samurra. Beraz, oraingo honetan gure **txaloa** denda horri eta baita zorionak ere bere 50 urteak gure herriarekin bete dituelako.



Atxabalta telebista

20:00
20:30 / 21:00

martizena
ALBISTEAK/Agenda Argazki-zaharrak Kirolak
Albiste errepikapena

egukotxa
ALBISTEAK/Agenda Eguraldia
Albiste errepikapena

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Telebista 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkartea 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murruxio M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikast. 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa


- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15



Aretxabaleta 1918. urtean

Goiko erretratu zaharrari erreparatzen badiogu, aurreko mendeko hasierako gure herria ikus dezakegu. 1918. urteko argazki zahar horretan, Otalora kalea ageri zaigu. Bertan, kalean behera datoz, **Pio Pagoaga mikeletea** eta berarekin batera beste bi

emakume. Pena bada ere, nortzuk diren ez dugu jakiterik izan.

Argazkiko etxeei dagokienean, besteak beste, ezker aldean Porrुकua baserria, Juan Manuelena eta Zestorokua daude. Eskumaldean, berriz, Kolonena, Murrixe-

na... Porrुकue baserri aurrean, bestalde, gurdi eta oiloek garai hartan kalean ere nagusi zen baserri giroa garbi erakusten digute. Ez du ez, gaur egungoarekin zer ikusirik.

Argazkia: Tolosako artxibo historikoa.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Debagoieneko Bigarren eskuko autoen II. Erakusketa

ARRASATE • Apirilak 7, 8 eta 9

Arruena Parkea (Hiper Eroskiren ondoan)

Ordutegia: 10:00-20:00 (Igandea: 10:00-14:00)

100 auto baino gehiago!



Antolatzaileak

aldi/bi

ION CITROËN

CHAPIME Tailerrak CITROËN

EKOMOBIL PEUGEOT

KANPAZAR FIAT

MECA RENAULT

MUGARRI Ford

TALLERES OLA OPEL

SEAT UDALAITZ, S.A.

ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA

FARMA



Parafarmazia



- y Haurrentzako produktuak eta elikagaiak
- y Dermokosmetikako produktuak
- y Sanitatezko produktuak
- y Sendagai naturalak
- y Produktu ortopedikoak
- y Produktu dietetikoak

... eta gainera: **Kontsulta naturala**

Loramendi, 8
20550 ARETXABAETA K Tel.: 943 77 18 18



Behar dituzun zainketak eskaintzen dizkizugu
.....
Loramendi 10ean gaude



LORAMENDI, 10
TEL.: 943 77 01 26
20550 ARETXABAETA

GARBITZE

GARBIKETAK

- Lehor eta busti garbiketa
- Mota guztietako jantzien garbiketa

Loramendi, 6
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 53 61

ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik